

@@@EDIKTUA, Familia eta Komunitate Politikarako zuzendariarena, 177/2010
Dek/48/2011-09-05 espedienteei buruzkoa.@@@

María Dolores García García andreak, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Saileko Familia eta Komunitate Politikarako zuzendariak, ediktu hau eman du:

EDIKTUA

Ezinezkoa izan da ediktu honen amaieran agertzen diren eskatzaileei berariaz jakinaraztea 177/2010 Dekretuan jasotzen diren diru-laguntzei buruzko ebazpenak (177/2010 Dekretua, ekainaren 29koa, familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzkoa).

Aipatutako espedienteetan emandako ebazpenen testu osoa eskuragarri izango dute interesdunek, Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritzan (Donostia kalea, 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).

Ebazpenak, ezestekoak eta atzera egitekoak direnez gero, ediktu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuz jakinarazten dira, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 59.5 artikuluan eta aplikatu beharreko gainerako xedapen konkordanteetan xedatutakoa betetzeko.

Adierazten diren espedienteen gainean emandako ebazpenek ez dute amaitzen administrazio-bidea, eta, beren aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkez dakioke Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Saileko Gizarte Gaietako sailburuordeari, ediktu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, hilabeteko epean, betiere Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 114. eta 115. artikuluetan xedatutakoa betetzeko.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko irailaren 5a.

Familia eta Komunitate Politikarako zuzendaria,
MARÍA DOLORES GARCÍA GARCÍA.